




## ISEI - IVEI

E1.2.3. CURRICULUM KONPETENTZIA LHko 4.  
MAILAN: MATEMATIKA.





IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA  
BASQUE INSTITUTE FOR RESEARCH AND EVALUATION IN EDUCATION

**ISEI-IVEI**



---

**Edizioa: 2021ko urtarrila**  
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**

Irakas-sistema Ebaluatu eta  
Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - [www.isei-ivei.hezkuntza.net](http://www.isei-ivei.hezkuntza.net)



# E1.2.3

## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.



### Aurkibidea

MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 ETA 2019 . . . . . 4

E.1.2.3.1 taula eta grafikoak: . . . . . 6

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Matematikarako kompetentzian* lortutako puntuazioen bilakaera, *Kantitatea, Espazioa eta forma, Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna eta Problemen ebazpena*, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera. . . . . 6

E1.2.3.2 taula eta grafikoak: . . . . . 7

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako kompetentzian* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera. . . . . 7

E1.2.3.3 taula eta grafikoak: . . . . . 8

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako kompetentzian* geruzaren arabera (Hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna). . . . . 8

E1.2.3.4 taula: . . . . . 9

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmilarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. . . . . 9

E1.2.3.4 grafikoa: . . . . . 10

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoa *Matematikarako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmilarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea. . . . . 10



## E1.2.3

### Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.

SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



#### MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 ETA 2019 <sup>1</sup>.

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Matematikarako kompetentzian* duten mailaren inguruko informazioa ematen du. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019 urteetako Ebaluazio Diagnostikoetan lortutakoak dira emaitzak. Ebaluazio honetan 250 puntuko batez bestekoa ezarri da, 50eko desbideratze tipikoarekin eta hiru errendimendu mailarekin.

Emaitzak arlo hauekin lotuta aztertzen dira: ikasleen sexua, dimentsioak<sup>2</sup> (*Kantitatea; Espazioa eta forma; Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna eta Problemak ebaztea*), geruzak (hizkuntza-ereduak<sup>3</sup> eta ikastetxearen titulartasuna<sup>4</sup>), Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK), irakasmilarekiko adin-egokitasuna (jaioturtea eta egiten ari den irakasmila), aitaren eta amaren ikasketen gehieneko maila, jaiolekua eta familia-hizkuntza.

2019an, *Matematikarako kompetentzian*, batez besteko puntuazioak (239) 16 puntu egin du behera 2011ko batez besteko puntuazioarekin alderatuta, altuena izan dela eta 6 puntu behera 2017ko batez besteko puntuazioarekin (245) alderatuta. Mutilek neskek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte ebaluazio guztietan.

*Matematikarako kompetentzian* dimentsioak 2010eko Ebaluazio Diagnostikotik abiatuta ezarri ziren. Dimentsio bakoitzean eta urte guztietarako, batez besteko puntuazioa 250 puntutan ezarri da; izan ere, item kopurua murriztagoa da eta ez dira alderagarriak. *Matematikarako kompetentzian* ebaluatutako lau dimentsioetako bilakaeraren azterketak erakusten du 2010 eta 2019 urteen artean, *Kantitatea* dimentsioak 1 puntu egin duela gora nesken kasuan; aldiz, 1 puntu egin du behera mutilen kasuan; hori dela eta, biak, 2019. urtean, 250 puntutan kokatu ziren. *Espazioan eta forman* 2 puntu egin du gora nesken kasuan eta 2 puntu egin du behera mutilen kasuan. *Aldaketa, erlazioak eta ziurgabetasunak* dimentsioan, nesken puntuazioek 4 puntu egin dute gora eta mutilek 3 puntu egin dute behera. *Problemen ebazpenean* puntuazio berberak mantendu dira mutilen kasuan (252) eta nesken kasuan (248). *Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasunak* dimentsioan, nesken puntuazioak 2 puntu behera egin du eta mutilen kasuan 2 puntu gora egin du.

*Matematikarako kompetentzian*, 2019eko Ebaluazio Diagnostikoan, errendimendu maila altuenetik baxuenera, ikasleen ehunekoak honako hau izan da: % 52,9 erdiko mailan, % 27,2 maila aurreratuan eta % 19,9 hasierako mailan. Erdiko mailan, nesken ehunekoak mutilen ehunekoak gainditzen du 6 puntutan, eta maila aurreratuan, mutilek neskek baino 5 puntu gehiago lortu dituzte. 2009 eta 2019 artean ikasleen ehunekoaren bilakaera positiboa izan da erdiko mailan 3,4 puntu gora eta 5,2 puntu gora egin du hasierako mailan eta 8,6 puntu behera egin du maila aurreratuan.

<sup>1</sup> Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

<sup>2</sup> *Matematikarako kompetentzian* dimentsioak lehen aldiz ebaluatu dira 2010eko Ebaluazio Diagnostikoan.

<sup>3</sup> EAEEn hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).

<sup>4</sup> EAEEn funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.



## E1.2.3

### Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.

2019an geruzen araberako batez besteko puntuazioak aztertu ostean, ikus daiteke puntuaziorik altuena itunpeko A ereduari (251) dagokiola; jarraian datoz itunpeko B (248) eta D (245) ereduak. Sare publikoaren baitan, puntuaziorik altuenak D (233) eta B (219) eredu publikoek lortu dituzte, eta puntuazio baxuagoa lortu du A ereduak (214). 2009 eta 2019 urteen artean, ikasleen batez besteko puntuazioetako bilakaera negatiboa izan da geruza guztietan, itunpeko A eta D ereduetan izan ezik; horietan balio berberekin mantentzen da.

2019an, *Matematikarako kompetentzian* erdiko mailan eta maila aurreratuan dauden ikasleen profila honako hau da: adin-egokitasuna irakasmalarekiko (% 82,3), itunpekoan ikasi (% 84,2), aitaren edo amaren gehieneko ikasketak goi mailakoak dituztenak (% 86,2) eta ISEK maila altua (% 91,3). Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila irakasmalari errepikatu duten ikasleena (% 52,7), atzerritarrena (% 67,7), gurasoek derrigorrezko ikasketak amaitu gabe dituzten ikasleena (% 60,5) eta ISEK maila baxua (% 68,9) dutenena da. Euskadiko ikasleen ezaugarriek ia ez dute aldaketarik jasan 2009 eta 2019 artean, gurasoen ikasketa mailari eta familia-hizkuntza euskaraz proba euskaraz egiten duenari dagokionez salbu, gora egin baitute.



# E1.2.3



## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.



### E.1.2.3.1 taula eta grafikoak:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Matematikarako kompetentzian* lortutako puntuazioen bilakaera, *Kantitatea, Espazioa eta forma, Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna eta Problemen ebazpena*, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera.

		2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019
<b>Guztira</b>	Guztira	<b>250</b>	<b>248</b>	<b>255</b>	<b>253</b>	<b>248</b>	<b>245</b>	<b>239</b>
	Neskak	249	245	252	252	246	243	237
	Mutilak	251	251	258	254	250	248	241
<i>Kantitatea</i>	Guztira		<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>
	Neskak		246	248	249	250	247	247
	Mutilak		254	252	251	250	253	253
<i>Espazio eta forma</i>	Guztira		<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>
	Neskak		249	249	249	248	250	251
	Mutilak		251	251	251	252	250	249
<i>Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna</i>	Guztira		<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>
	Neskak		246	250	251	248	250	250
	Mutilak		253	250	249	252	250	250
<i>Problemen ebazpena</i>	Guztira		<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>250</b>
	Neskak		248	246	249	248	246	246
	Mutilak		252	253	251	252	254	254



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



# E1.2.3



## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.



### E1.2.3.2 taula eta grafikoak:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako kompetentzian* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera.

	Errendimendu maila HASIERA			Errendimendu maila ERDIA			Errendimendu maila AURRERATUA		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2009	14,7	14,2	15,2	49,5	51,4	47,7	35,8	34,5	37,1
2010	15,0	15,1	14,9	52,5	55,6	49,5	32,5	29,3	35,6
2011	11,5	11,9	11,2	49,2	51,5	47,0	39,3	36,6	41,8
2013	12,1	11,5	12,6	52,8	54,7	51,0	35,2	33,9	36,4
2015	13,9	13,8	13,9	54,5	56,5	52,5	31,7	29,7	33,6
2017	15,0	15,2	14,7	55,7	57,7	53,8	29,3	27,0	31,4
2019	19,9	19,5	20,2	52,9	56,1	50,0	27,2	24,5	29,8



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



# E1.2.3



## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.



### E1.2.3.3 taula eta grafikoak:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako kompetentzian* geruzaren arabera (Hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna).

	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019
A Publikoa	223	214	218	215	209	204	214
B Publikoa	241	237	243	241	231	234	219
D Publikoa	246	244	251	249	244	241	233
A Itunpekoa	262	258	263	265	262	255	251
B Itunpekoa	256	253	260	258	254	251	245
D Itunpekoa	255	254	263	258	254	252	248



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.





## E1.2.3

### Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.

SISTEMA VASCO  
DE INDICADORES  
EDUCATIVOS



#### E1.2.3.4 taula:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Matematikarako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetak bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmilarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

		Ikasle %							Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
		2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2019		
ISEK	Maila baxua <sup>2</sup>	14,6	15,9	14,9	17,0	16,1	24,4	<b>24,6</b>	31,1	54,7	14,1
	Maila ertain baxua <sup>2</sup>	23,4	24,2	24,2	24,9	23,7	25,0	<b>25,0</b>	20,8	56,8	22,4
	Maila ertain altua <sup>2</sup>	28,0	26,6	27,3	27,1	27,7	25,2	<b>25,1</b>	14,4	51,7	34,0
	Maila altua <sup>2</sup>	34,0	33,3	33,6	31,1	32,5	25,4	<b>25,4</b>	8,7	47,3	44,0
Egokitasuna	Ikasmila egokia	92,7	91,9	92,3	92,7	92,6	93,4	<b>92,5</b>	17,7	53,5	28,9
	Ikasmila <b>EZ</b> egokia	7,3	8,1	7,7	7,3	7,4	6,6	<b>7,5</b>	47,3	45,9	6,8
Titulartasuna	Publikoa	50,2	50,0	50,3	50,1	50,3	51,4	<b>51,2</b>	23,8	54,2	22,0
	Itunpekoa	49,8	50,0	49,7	49,9	49,7	48,6	<b>48,8</b>	15,8	51,6	32,7
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrig. Ikask. bukatu <b>gabe</b>	3,3	3,1	3,8	3,6	3,4	4,1	<b>3,3</b>	39,5	50,6	9,9
	Derrigorrezko ikasketak	12,9	12,6	14,6	14,1	12,4	12,5	<b>10,6</b>	30,4	56,6	12,9
	Batxilergoa, HZ	34,6	34,0	38,3	35,9	36,6	37,3	<b>32,0</b>	23,4	56,2	20,3
	Goi mailako ikasketak	41,0	41,3	43,3	46,5	47,6	46,1	<b>54,1</b>	13,8	50,0	36,2
Jaioterrria	Autoktonoa	94,7	93,9	94,2	94,8	94,4	91,4	<b>90,1</b>	18,3	52,7	29,0
	Atzerritarra	5,3	6,1	5,8	5,2	5,6	8,6	<b>9,9</b>	32,3	54,4	13,4
Familia-hizkuntza* euskara	Probaren hizk. euskara	97,3	93,1	96,1	94,2		95,6	<b>98,1</b>	13,3	49,7	37,0
	Probaren hizk. gaztelania	2,7	6,2	3,9	5,5		26,1	<b>1,9</b>	28,0	47,6	24,4
Familia-hizkuntza* euskara <b>EZ</b>	Probaren hizk. euskara	55,8	53,1	56,8	60,9		67,4	<b>74,4</b>	22,4	54,6	22,9
	Probaren hizk. gaztelania	44,2	45,3	43,2	38,9		73,9	<b>25,5</b>	19,0	51,7	29,3

\*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.




# E1.2.3

## Curriculum kompetentzia LHko 4. mailan: Matematika.



### E1.2.3.4 grafikoa:

Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleen ehunekoa *Matematikarako kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2019.